



**LOUHOSSOA**  
**—LUHUSO—**

2020ko ekainaren 26ko

kontseilu agiria

Legeak dioen bezala deitutako herriko kontseilua herriko etxeko gelan bildu da Luhusoko auzapeza den Jean-Pierre HARRIET jaunaren lehendakaritzaren pean.

**Hor zirenak (15):**

DUCLOS Bernadette, HAPETTE Maylis, HIRIART Alain, HARRIET Jean Pierre, IRIART BONNECAZE Carole, LARRALDE Ximun, MEMBREDE Mathieu, MONGABURE Vincent, OTHABURU Sébastien, ROUX Christine, SAINT ESTEBEN Marie, SAINT PIERRE Marie Claire, SAPPARRART Bertrand, URRUTY Chantal, VALLET Christophe: Kontseilariak.

Ezin etorria jakinarazi zutenak (0):

Idazkaria: SAINT ESTEBEN Marie

**Hilobi kontzesio baten berriz hartzea**

Auzapezak herriko kontseiluari jakinarazten dio 104 zk. hilobi kontzesioa, planoko 125 zk., epemugara iritsi dela 2015eko agorrilaren 31n. Hilobi kontzesioaren jabe den familiari oroitarazte gutun batzuk bidali ondoren, familiak ez du kontzesioa berritu nahi izan.

Aldi bateko kontzesio bat epemugara iristen delarik, kontzesioaren jabeek edo haien eskubidedunek erreberritze eskubidea dute, kontzesioaren epemugaren bi ondoko urteetan balia dezaketena, hasierako epea edozein izan ere.

Epe hau iragan ondoren, aldi bateko kontzesioaren berriz hartzea edonoiz gerta daiteke azken 5 urteetan ez bada hobiratzerik izan (hobiratzerik ez 1966tik goiti).

Beraz, A20200008 erabakia bidalia izan zaio 104 zk. hilobi kontzesioaren jabea zen familiari, gorpuak eta hilobi-ekipamenduak eskura ditzakeela eta 2018ko agorrilaren 31n herriko etxeak hilobi kontzesioa berriz hartuko zuela jakin zezan.

Familiak ez du desobiratzerik eginarazi. Beraz desobiratzea egin behar da. Aurrekontu desberdinak eskatuak izan dira. Herriko kontseiluari aurkeztuak zaizkio:

- DABBADIE enpresa: 1025 €
- DUBOURDIEU enpresa: 1103,44 €
- DUHART Etxea: 1836 €

Eztabaidatu ondoren, herriko kontseiluak

DABBADIE enpresaren aurrekontua **ONESTEN DU** 1025 €ko zenbatekoarentzat

**Aho batez onartua,**

## Mantentze-langile enplegu iraunkor baten sortzea - Langile-kopuruen taula

Lurralde funtzio publikoari dagozkion estatutu-xedapenei buruzko aldatua izan den 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 zk. legearen 3-3-3° artikulua aplikazioaren arabera, Luhusoko auzapezak oroitarazten du 1000 biztanle baino guttiagoko herrietan kontratupeko langileak hartu daitekeela enplegu iraunkor batentzat.

Lan-kontratuak 3 urteko epean mugatuak dira, esanbidezko luzatze baten bidez berrizta daitezke 6 urteko neurrian. 6 urteko epe honen ondotik kontratua luzatua baldin bada, esanbidezko erabaki baten ondorioa izan behar da eta eperik gabekoa.

Lanaldi partzialeko mantentze-langile enplegua (9,56/35) betetzen du langile berak 2019ko urtarriletik goiti. Ondoz ondoko epe mugatuzko kontratuen bidez enplegatua izan zen.

Luhusoko auzapezak biltzar erabakitzaileari proposatzen dio deliberamendu honi eratzikia zaion eperik gabeko lan kontratuaren hitzak onartzea eta izenpetzeko baimena ematea.

Funtzio publikoko 348 indize gordinari dagokion lansariak du enplegua hornituko.

Galdera horiei buruz iritzia agertzera gomitatua izan ondotik eta eztabaidatu ondotik,

Herriko kontseiluak,

**ERABAKITZEN DU** funtzio publikoko 348 indize gordinari dagokion lansariak duela enplegua hornituko.

**BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari deliberamendu honi eratzikia zaion ereduaren arabera eperik gabeko lan kontratua izenpetzeko

**ONARTZEN DITU** auzapezaren proposamen guziak

**ZEHAZTEN DU** behar diren kredituak aurreikusiak izan direla urtaldiko aurrekontuetan.

### ENPLEGUEN KUDEAKETA ETA JARRAIPEN TAULA 2020KO EKAINAREN 26AN

Enplegu iraunkorrak	Doa(z)kien maila(k)	Kategoria	Aurrekontu-kopurua	Hornitua den kopurua	Bana besteko asteroko lan denbora	Oinarria (Tituludun ez den langile bat har badaiteke)
<b>Administrazio-zerbitzuak</b>						
Kontularia	Arduraduna Arduradun nagusia	A	1	1	DO	
Kontularia	Erredaktorea 2. mailako erredaktore nagusia	B	1	0	DO	
Kontularia	2. mailako administrari laguntzailea	C	1	1	20 oren	

Zerbitzu teknikoak						
Mantentze-langilea	Teknikari laguntzaileen lanpostu esparrua	C	1	1	DO	
Mantentze-langilea	Teknikari laguntzaileen lanpostu esparrua	C	1	1	9,56 oren	Lurralde funtzio publikoari dagokion aldatua izan den 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 zk. legearen 3-4 II artikulua
Eskola eta eskolaldi inguruko zerbitzua						
Eskolako langilea	Ama-eskoletan Berezitu Lurralde Agenteen lanpostu esparrua	C	1	1	32,01 oren	
Eskolako langilea	Teknikari laguntzaileen lanpostu esparrua	C	1	1	19,06 oren	
Animazio zerbitzua						
Eskolako langilea	Animazio laguntzaileen lanpostu esparrua	C	1	0	32,01 oren	

Aho batez onartua,

**EGINKIZUNEN, MENPEKOTASUNEN, GAITASUNAREN ETA ENGAIAMENDU PROFESIONALAREN ARABERAKO ORDAINSARI-ARAUBIDEA PLANTAN EZARTZEA (RIFSEEP)**

2008ko maiatzaren 16ko eta 2016ko apirilaren 12ko erabakien bidez ordainsari-araubide bat plantan ezarria izan zela Lulusoko herriko langileentzat oroitarazten du auzapezak.

2016ko urtarrilaren 1etik plantan ezarria izan den eginkizunen, menpekotasunen, gaitasunaren eta engaiamendu profesionalaren araberako ordainsari-araubide berria Lurralde Funtzio Publikoari aplikatu dakiok.

Oroitarazten du lurralde langileek sariak eta ordainsariak ukan ditzaketela maila bereko eginkizunak betetzen dituzten Estatuko funtzionarioek dituzten baldintza beretan. Dekretu batek ditu baliokidetzak finkatzen (1991ko irailaren 6ko 91-875 zk. dekretuak).

Aukerako abantaila izanik, legeak organo erabakitzaileei uzten die ordainsari-araubidea ezartzeko eta aplikatzeko baldintzak finkatzeko gaitasuna, Estatuko funtzio publikoari aplikatzen zaizkion testu arautuek finkatzen duten neurrian, parekotasun araua aplikatuz.

Herriko kontseiluaren esku dago ondoko gaiei buruz iritzia agertzea:

- langile onuradunak,
- elkargoan ordainduak izan diren sarien mota,
- bakoitzaren zenbatekoa, Estatuko funtzionarioentzat aurreikusitako zenbateko gorenaren neurrian, baita errebalorizazioaren erak; Estatuko funtzionarioentzat aurreikusitako sarien zenbatekoak dira erkidegoei aplikatu behar den muga gorena,
- ordainsari-araubidearen esleitzeko irizpideak,
- ordaintzaren periodikotasuna

RIFSEEP osatzen dutenak dira:

- eginkizunen, menpekotasunen eta gaitasunaren arabera ordainsari bat (IFSE);
- halaberrez, urteko ordainsari-osagarri bat (CIA), elkarrizketa profesionalean oinarritutako engaiamendu profesionala eta zerbitzatzeko manera kontuan hartuz.

Araudi berri honek orain arte ziren sari batzuk ordezkatzeko, hala nola, Betebeharrak Betetze Ordainsaria (IEM), Administrazio eta Teknikotasun Ordainsaria (IAT) eta Lan Gehigarriendako Ordainsari Finkoa (IFTS).

Erkidegoak langileen ordainsari-araudia berregiteko eta RIFSEEP ezartzeko gogoetak abiatu ditu ondoko helburuekin:

- lanpostu desberdinen balioztapen maila kontuan hartzea hiru irizpideen arabera: ardura, gaitasuna eta menpekotasunak
- lankideen engaiamendua piztea

## 1 - ONURADUNAK

Indarrean dauden neurri arautuen arabera, RIFSEEP ezarria izan da ordainsari-araudia ezartzeko erreferentziakoak diren Estatuko kidego edo zerbitzuendako, behean zerrendatutako lurralde lanpostu esparruendako:

- Arduradunak
- Erredaktoreak
- Administrazio laguntzaileak
- Teknikari laguntzaileak
- Animazio laguntzaileak
- ABLAK

Sariak eta ordainsariak ordainduak izan dakizkieke:

- funtzionario ikastunei eta tituludunei,
- erkidegoko zuzenbide publikoko kontratupeko langileei, mota bereko eta hierarkia maila bereko misioak betetzen dituzten funtzionarioendako aurreikusitako oinarri berean.

## 2 - EGINKIZUNEN, MENPEKOTASUNEN ETA GAITASUNAREN ARABERAKO ORDAINSARIA (IFSE)

IFSEk eginkizunen betetzea balioztatzea du helburu, eta ordainsari-araudiaren sari nagusia da.

Ordainsari honen oinarriak dira, alde batetik, lanpostuari doazkion irizpide profesionalen formalizatzeko zehatz bat eta, bestalde, esperientzia profesionala kontuan hartzea.

Estatuarentzat, banaka egoki daitekeen oinarritzko zenbateko batek du sariaren zati bana osatzen, ministerioko erabaki batek zehazten duen mugaren neurrian. Erkidegoko langileei aplikatu dakizkiekeen zenbatekoak muga horien neurrian finkatuak dira.

Lanpostu esparru bakoitzerako, eginkizun multzoak finkatzea komeni da, ondoko irizpideen arabera:

- Ardura, koordinaketa, gidaritza edo asmakuntza eginkizunak;
- Eginkizunak betetzeko behar diren teknikotasuna, gaitasuna, esperientzia edo kalifikazioa;
- Menpekotasun bereziak edo ingurumen profesionalaren arabera lanpostuaren espezializazio maila.

Multzo bakoitzari gaitzitu behar ez den urteko ordainsari zenbateko goren bat datzekio.

Eginkizun multzoak hierarkizatuak dira, 1 multzotik ondoko multzora:

- 1 A kategoriarentzat;
- 2 B kategoriarentzat;
- 2 C kategoriarentzat.

### 3 - URTEKO ORDAINSARI-OSAGARRIA (CIA)

Langileei urtero ordainsari-osagarri bat esleitzea proposatua zaizue, engaiamendu profesionalaren eta elkarrizketa profesionalaren baldintzetan estimatutako zerbitzatzeko manieraren arabera.

Besteak beste estimatuak izanen dira:

- Zerbitzuaren galtzarrean inplikatzeta
- Harreman gaitasunak
- Zerbitzu publikorako jitea
- Erresalbua, zuhurtzia eta lanbide-sekretua
- Taldean eta diziplina anitzekin lan egiteko gaitasuna
- Tenorekotasuna eta jarraikitasuna
- Baliabide materialak errespetatzea
- Autonomikoki lan egitea
- Zorroztasuna eta egindako lana fidagarria izatea
- Erreaktibotasuna larrialdi egoera baten aitzinean
- Langilearen balio profesionala
- Lanpostuaren eskakizunei egokitzeko eta barne zein kanpoko partzuerrekin elkarlanean aritzeko gaitasuna
- Zerbitzuko egitasmoetan inplikatzeta
- Bere arloan aitzina joateko urratsak egitea
- Prest egotea
- Eraberritze izpiritua eta sormena ukaitea

Ordaindua izanen zaio elkarrizketa profesionalaren emaitzen arabera.

Ordainsari-osagarriaren zenbatekoa ezin izango da ondotik adierazitakoa baino goragoa izan:

- RIFSEEP muga orokorraren %15 A kategoriako funtzionarioentzat
- RIFSEEP muga orokorraren %12 B kategoriako funtzionarioentzat
- RIFSEEP muga orokorraren %10 C kategoriako funtzionarioentzat

Banakako zenbatekoa, CIAko zenbateko gorenaren %0 eta 100 artean kokatua, gainean adierazitako irizpideen arabera esleitua zaio langileari.

Ordainketa hau ezin daiteke automatikoki luzatu urte batetik bestera.

### 4 - ZENBATEKOAK

Behereko tauletan agertzen diren zenbatekoak denbora osoz ari den langile batentzat aurreikusiak dira.

Erkidegoak enplegatzen duen langile kopurua kontuan hartuz, eginkizun multzo bakoitzarentzat eta denbora osoz ari den langile batentzat finkatuak diren zenbatekoak 0 eta ondoko taula bakoitzean agertzen den zenbateko gorenaren artean koka daitezke:

#### Adar administratiboa

- Lurralde arduradunak (A kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko goren	CIA - Urteko zenbateko goren	Urteko zenbateko goren
1 multzoa	Herriko Etxeko idazkari nagusia	7 015 €	985 €	8.000 €

- Lurralde erredaktoreak (B kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA - Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1 multzoa	Zerbitzu arduraduna, eginkizun administratibo korapilatsuak	7.015 €	841 €	7.856 €
2 multzoa	Hurbileko ardura, zuzendaritza laguntzailea	6.650 €	798 €	7.448 €

- Lurralde administrazio laguntzaileak (C kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA - Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1 multzoa	Zuzendaritza idazkaria	5.340 €	334 €	5.674 €
2 multzoa	Egikaritze langilea, harreragilea	4.800 €	280 €	5.080 €

#### Adar teknikoa

- Lurralde teknikari laguntzaileak (C kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA - Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1 multzoa	Gaitasun anitzeko langilea	5.340 €	334 €	5.674 €
2 multzoa	Egikaritze langilea	4.800 €	280 €	5.080 €

#### Animazio adarra

- Lurralde animazio laguntzaileak (C kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA - Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1 multzoa	Hurbileko eta erabiltzaileen ardura	5.340 €	334 €	5.674 €
2 multzoa	Egikaritze langilea	4.800 €	280 €	5.080 €

## Gizarte adarra

- Ama-eskoletan Berezitu Lurralde Agentea (ABLA) (C kategoria)

Multzoa	Lanpostuak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA - Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1 multzoa	Erantzukizun bereziak dituen ABLA	5.340 €	334 €	5.674 €
2 multzoa	Egikaritze langilea	4.800 €	280 €	5.080 €

## 5 - ORDAINSARIA ESLEITZEKO BALDINTZAK

### a. BERRAZTERKETA

IFSEren zenbatekoa berriz aztertua da:

- eginkizunez edo lanpostuz aldatzerakoan,
- aitzinamendu, maila igoera edo konkurtso bat lortu ondorengo izendapen baten ondorioz, mailaz edo lanpostu esparruz aldatzerakoan,
- bederen lau urte guzietz, ez baldin bada eginkizunez aldatzen eta langileak lortu duen esperientziaren arabera.

### b. ORDAINKETAREN PERIODIKOTASUNA

IFSE hilabetero ordaindua izanen da esleitutako banakako urteko zenbatekoaren neurrian.

CIA bi alditan ordaindua izanen da ekainean eta abenduan.

### c. MANTENTZE EDO KENTZE ERAK LANA HUTS EGITEAN

Aldi batez lanean ez diren langileei dagokienez, 2010eko agorrilaren 26ko 2010-997 zk. dekretuaren Estatuaren agenteei aplika dakiekeen neurriak aplika daitezke. Sariak soldataren egoera segituko dute ondoko kasuetan:

- urteko oporrak
- lan denboraren malgutzeta eta murrizte egunak
- geldialdiak eritasun arruntagatik eta eritasun geldialdiak
- Zerbitzu istripu edo eritasun profesional baten ondoriozko geldialdiak
- Amatasun, aitasun eta haurra errezibitze, adopzio geldialdiak

Erabat gelditua izanen da ondoko kasuetan:

- geldialdia eritasun luzeagatik
- epe luzeko geldialdia
- geldialdia eritasun larriagatik

Funtzionarioa eritasuna luzeagatik edo epe luzeko eritasunagatik gelditua delarik, aitzinetik onartutako eritasun arruntagatik edo lan istripu batengatik edo eritasun batengatik ukandako geldialdi baten denboran eskatu ondoren, lehen geldialdi horren denboran ordainduak izan zaizkion sariak eta ordainsariak atxikitzen ditu langileak.

Sarien ordainketa lanaldi partzial terapeutikoaren denboran egiazko zerbitzu denboraren arabera kalkulatu da.

Sarien, IFSEren eta CIAREN ordainketa mantendua izanen da **soldataren proportzio berean** ondoko garaietan:

- lana huts egiteko baimena berezia,
- formakuntzara joatea (salbu formakuntza profesionaleko oporraldia)

Ordainsari-araudia mantendua delarik, "IFSE" zatia baizik ez litzateke mantendua izanen lana huts egite denborak ez baldin badu engaiamenduaren eta zerbitzuaren manera zuzenki estimatzeko bidea ematen CIA ordaintzeko.

Sarien ordainketa gelditua izanen da ondoko garaietan:

- formakuntza profesionaleko oporraldia
- diziplina prozedura baten esparruan kargutik kentzea

#### **d. LANALDIAREN ARABERAKO EGOKITZAPENAK**

Funtzionario eta zuzenbide publikoko kontratupeko langileentzat lanaldi partzialean enplegatuak direlarik edo lanaldi partzialean aritzeko baimena dutelarik, sarien zenbatekoak soldataren proportzioen arabera dira.

#### **e. BANAKAKO ESLEITZEA**

Ordainsari-araudiaren IFSEren eta CIAren banakako esleitzeak auzapezaren banakako erabaki baten gaiak dira.

Urteko ordainsari-osagarria esleitzen duen erabakiak urte bakar bateko baliozkotasuna du.

Eginkizunen, menpekotasunen eta gaitasunaren arabera ordainsaria esleitzeko erabakiak etengabeko baliozkotasuna du.

Auzapezak banakako zenbatekoak esleituko ditu 0 eta gaineko tauletan aurreikusitako zenbateko gorenaren artean.

#### **f. METAKETAK**

RIFSEEP ondokoekin meta daiteke:

- gauzatutako eginkizunen esparruan bideratutako gastuen ordainketa (adibidez: bidaia gastuak),
- indizearen arabera hobari berria,
- zuzendaritza administrazio lanpostuen erantzukizun saria,
- gaueko, igandeko eta jaiegunetako lanaldirako sariak,
- deipeko sariak,
- esku-hartze sariak,
- segurtasunezko zerbitzu sariak,
- oreneko sariak lan gehigarriengatik,
- sari osagarri finkoa hauteskundeengatik.

#### **g. AITZINEKO ORDAINSARI-ARAUDIAREN ZENBATEKOEN MANTENTZEA**

Proposatua zaizue aitzineko araudiaren erabakien arabera langileak zuen ordainsariaren zenbatekoa mantentzea, banakako moldean, dagokion funtzionarioari, zenbateko hau ttipitua agertzen delarik erreferentziazko Estatuko zerbitzuei aplikatzen diren araudiaren erabakiak aplikatuz edo aldatuz, edo duen tituluaren mailaren indizearen arabera mugen aldaketa baten ondorioz (1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 zk. legearen 88. artikulua).

Lanpostuari lotutako mailaren, eginkizunen, menpekotasunen gisan ordaindu daitezkeen sariei eta ordainsariei dagokie mantentze hau, baita hilabetero nabaritzen den zerbitzatzeko manerari ere, eta behar balitz, emaitzei, salbu ohiz kanpoko ordainketa oro.

Auzapezaren azalpen gehigarriak entzun ondotik, eta 2020ko ekainaren 23ko saioan herriarteko batzorde teknikoak agertu duen iritzia arabera eta eztabaidatu ondoren, Herriko kontseiluak,



**ONARTZEN DITU** sari eta ordainsari desberdinak ezartzen dituen testuak, erkidegoan aplika daitezkeen esleitze baldintza bereziekin, deliberamendu honek dioen bezala, hots:

- Lurralde Funtzio Publikoari aplika dakizkiokeen erabakiei buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko legearen 88. artikuluan 1. lerrokada aplikatzeko hartua izan den 1991ko irailaren 6ko 91-875 zk. dekretu aldatua,
- Eginkizunen, menpekotasunen, gaitasunaren eta engaiamendu profesionalaren araberako ordainsari-araudiaren sortzeari buruzko 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretu aldatua,
- 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretua eta bere eranskinaren neurrien Estatuko administrazio-arduradunen kidegoei aplikatzeko hartua izan den 2015eko ekainaren 3ko erabaki aldatua,
- 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretuaren neurrien Estatuko administrazio-erredaktoreen kidegoei aplikatzeko hartuak izan diren 2015eko martxoaren 19ko eta 2015eko abenduaren 17ko erabakiak,
- 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretua eta bere eranskinaren neurrien Estatuko administrazio eta administrazio-laguntzaileen kidegoei aplikatzeko hartua izan den 2014ko maiatzaren 20ko erabaki aldatua,
- 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretuaren neurrien Estatuko administrazio teknikari laguntzaileen kidegoei aplikatzeko hartua izan den 2015eko apirilaren 28ko erabakia,
- 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 zk. dekretuaren neurrien Estatuko administrazio ama-eskoletan berezitu lurralde agenteen kidegoei aplikatzeko hartuak izan diren 2014ko maiatzaren 20ko eta 2015eko abenduaren 18ko erabakiak,
- Eginkizunen, menpekotasunen, gaitasunaren eta engaiamendu profesionalaren araberako ordainsari-araudiaren sortzeari buruzko 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretuaren 5. artikulua aplikatzeko hartua izan den 2015eko agorrilaren 27ko erabaki aldatua,
- RIFSEEPi dagokien esleitze baldintzei, onuradunei, ordainsarien errebalorizazioari eta erabaki honetan aipatutako zenbatakoei buruzko auzapezaren proposamenak onartzen ditu,

**INDARGABETZEN DITU** teknikari laguntzaileen lanpostu esparruaren mendearen diren langileei aplika daitezkeen ordainsari-araudiari dagokion 2008ko maiatzaren 16ko erabakia eta lurralde administrazio laguntzaileen eta lurralde erredaktoreen lanpostu esparruaren mendearen diren langileei aplika daitezkeen ordainsari-araudiari dagokion 2016ko apirilaren 12ko erabakia.

**ZEHAZTEN DU** - deliberamendu honen neurriak 2020ko uztailaren 1.ean sartuko direla indarrean.

- behar diren kredituak aurreikusiak izan direla urtaldiko aurrekontuetan.

**Aho batez onartua,**

<b>ERABAKIAREN GAIA: HELBIDERATZERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA</b>
---

Lurralde erkidegoen kode orokorraren arabera eta bereziki L5216-5 VI artikuluan arabera;

Euskal Hirigune Elkargoak bere kide diren herriei esleitutako diru-laguntzen araudiaren arabera, 2019ko irailaren 28ko saioan Elkargoko kontseiluak onarturik;

**KONTUAN HARTUZ** LUHUSOKO herriak helbideratzea gauzatu nahi duela 2020an.

**KONTUAN HARTUZ**, esparru honetan, LUHUSOKO herria helbideratzerako diru-laguntzari hautagai diren herrietako bat dela.

**KONTUAN HARTUZ** LUHUSOKO herriak 68 bide zenbatzen dituela eta bide horien seinaleetika elebiduna izanen dela (euskara/frantsesa).

Eztabaidatu ondotik, Herriko kontseiluak,

**ERABAKITZEN DU** 6 000 €ko diru-laguntza eskatzea Euskal Hirigune Elkargoari helbideratzearen diruztatzean parte har dezan.

**BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari eskaera honi dagokion agiri oro izenpetzeko.

**Aho batez onartua,**

### 2020ko zerga-tasaren bozkatzea

Auzapezak biltzarrari oroitarazten dio 84 196 €ko zerga-mozkina beharrezkoa dela aurrekontuen oreka bermatzeko. Zehazten du bizitegi nagusien zergaren kentzearen esparruan Herriak ezin duela zerga honen tasa bozkatu baina 101 490 € eskuratuko dituela horregatik.

Ondorioz, etxeekilako eta etxerik gabeko ondasunen lur-zergaren tasen bozkatzeari buruz iritzia agertzea gomitatua da kontseilua.

Adierazten du, Estatuak jakinarazi dituen zerga-oinarriak kontuan harturik, tasa iraunkorreko bi zerga horien mozkina 84 196 €koa litzatekeela.

Ondorioz, 2019ko tasak ez aldatzea proposatzen du, ondoko taularen arabera:

	Oinarria	Tasa	Mozkina
Etxeekilako lurra	656.400 €	%12,77	79.991 €
Etxerik gabeko lurra	16.400 €	%25,64	4.205 €

Herriko kontseiluak, auzapezaren azalpenak entzun ondoren eta luzaz eztabaidatu ondoren,

**ERABAKITZEN DU** 2020ko urterako zerga-tasa ondotik agertzen den bezala bozkatzea:

	Oinarria	Tasa	Mozkina
Etxeekilako lurra	656.400 €	%12,77	79.991 €
Etxerik gabeko lurra	16.400 €	%25,64	4.205 €

**Aho batez onartua,**

### 2020ko JATORRIZKO AURREKONTUAK

2020ko herriko eta hilerriko jatorrizko aurrekontuak aho batez bozkatuak izan dira.

Auzapezak oroitarazten dio biltzarrari zergen kode orokorraren 1650 artikulua herri bakoitzean Zuzeneko Zergen Herri Batzorde bat finkatzen duela, auzapezaren lehendakartzaren pean.

Zehazten du 2 000 biztanle baino guttiagoko herrietan, batzordean aulkia duten batzordekideen eta haien ordezkoen kopurua seikoa dela.

Departamenduko finantza publikoen zuzendariak ditu batzordekideak eta haien ordezkoak izendatzen, kopuru berean, zerga ordaintzaileen zerrendatik, eta kopuru bikoiztuan, herriko kontseiluak eginik.

Batzordekide izateko, behar da:

- Frantses nortasuna ukan edo Europar Batasuneko estatukide baten hiritarra izan;
- Bederen 18 urte ukan;
- Eskubide zibilez gozatu;
- Herrian tokiko zuzeneko zergen zerrendetan izan,
- Tokiko egoerei ohitua izan eta batzordearen gomendio utzitako lanen gauzatzeko behar diren ezagutzak ukan.

Auzapezak zehazten du batzordekideen eta haien ordezkoen izendatzea egiten dela lur-zerga, bizitegi-zerga eta enpresen lur-kotizazioa ordaintzen dituztenak zuzenki ordezkatuak izan daitezen gisan.

ZZHBko kideen karguaren epea herriko kontseiluaren karguarena bezalakoa da.

Herriko kontseiluak, auzapezaren azalpenak entzun ondoren eta luzaz eztabaidatu ondoren,

**ERABAKITZEN DU** departamenduko finantza publikoen zuzendariari ondoko 24 izenez osatutako zerrenda proposatzea batzordekideak hauta ditzan:

- DUCLOS Bernadette,
- HAPETTE Maylis,
- HIRIART Alain,
- MEMBREDE Mathieu,
- MONGABURE Vincent,
- OTHABURU Sébastien,
- ROUX Christine,
- SAINT ESTEBEN Marie,
- SAINT PIERRE Marie Claire,
- SAPPARRART Bertrand,
- URRUTY Chantal,
- VALLET Christophe
- MEMBREDE Régis
- MEMBREDE Christelle
- HIRIART Yolande
- BOUCHE Bertrand
- DUCLOS Michel
- IRIART Jean
- DUPUY Gilbert
- ETCHEVERRY Jean
- OLHAGARAY Michel
- HARRIET Eliane
- SAINT ESTEBEN Peio

**Aho batez onartua,**

## ESKOLAKO JANTEGIKO PREZIOARI DOAKIO DELIBEROA

Eskolako jantegiaren prezioa ez da emendatu 2012 urteaz geroztik.

Erabakia hartua izan da, gaur eguneko prezioa 2020ko buruiletik goiti emendatuko zela hona honetan:

- Ama-eskolakoen eta lehen mailakoen bazkaria: 3.35 €tan, 3.25 € ordeztan
- Helduen bazkaria: 4.30 €tan 4.20 € ordeztan

Aho batez onartua,

## SIG PLATAFORMARI / GEO64 HARPIDETZARI DOAKIEN DELIBEROA

Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoak SIG (Informazio Geografikoko Sistema) plataforma bat proposatzen du, hau da, Internet bidez eskura daitekeena, Geo64 izeneko, eta kolektibitateen eskura ezartzen ditu informazio-estaldura batzu (batez ere, funts topografikoa, plano eta kadastra erregistroa, airez harturiko argazkiak...), funtzionaltasunenak eta lanbide moduluenak (adibidez, hilerriaren kudeaketa, bideen helbideratze plana, sare hezeen kudeaketa, ...).

Auzapezak adierazi du Agentziak partaidetza gehigarri bati deituko diola, bere zerbitzu informatikoaren parte-hartze araudian deskribatuak diren modalitateen arabera.

Proiektu honek kolektibitatearentzat duen interesa kontuan hartuz, Auzapezak tresna berri hori erabiltzea proposatu dio herriko kontseiluari, azalpen osagarriak entzun eta luzaz eztabaidatu ondoren.

ERABAKITZEN DU, Geo64ra harpidetzea, bere zerbitzu informatikoaren esku-hartze araudiak zehazten dituen modalitateen arabera.

Aho batez onartua,

## TOPONYMIE - Modak izendatzea

Alkateak udal zinegotziei azaldu die:

Pyrénées-Atlantiques departamenduko kontseiluak eta EAEko aglomerazio komunitateak abiarazitako abiadura handiko sarearen garapenaren baitan, helbideratzeak ezartzea funtsezkoa da oso zuntz handiko interneterako sarbidea merkaturatzeko. zordunak, inguruko etxebizitzak eta enpresak identifikatzea eskatzen du.

Ekintza honek zure segurtasuna (suteak eta salbamendu zerbitzuak) eta zerbitzuen eraginkortasuna hobetzen laguntzen du (posta, sare hornitzaileak, entrega, zerbitzu pertsonalak, etab.) Etxeak eta negozioak lokalizatuz.

Kaleen izenak aukeratzea tokiko toponimoak kontserbatzeko eta etxeen izenak mantentzerakoan arreta berezia izan zen.

Izen hauek onartzea gomendatzen dut:

Bidearen izena	Nom de la voie ou du chemin
Adarreko bidexka	Sentier d'Adarre
Aderreko bide itsua	Impasse d'Ader
Airoskiko bide itsua	Impasse d'Airoski
Arrokaxolaneko bide itsua	Impasse d'Arrokaxolan
Artxandegiko bidea	Chemin d'Artxandegia
Bettinoeneko bidea	Chemin de Bettinoenea
Bidarraiko errepidea	Route de Bidarray
Bildostegiko bidea	Chemin de Bildostegia
Bixenteneko bidea	Chemin de Bixentenea

Bixkoxtegia karrika	Rue de la Biscuiterie
Bokoletzeko bidea	Chemin de Bokoletxea
Bordaberriko bidea	Chemin de Bordaberria
Bordetzeko bidea	Chemin de Bordetxea
Elixako bidea	Chemin d'Elixa
Eltzeriako <b>bidea</b>	<b>Chemin</b> de la Poterie
Erretoretzeko bidea	Chemin d'Erretoretxea
Etxe Maitiako bide itsua	Impasse d'Etxe Maitia
<del>Etzegariko bidea (à définir)</del>	<del>Chemin d'Etzegaraia (à définir)</del>
Etxepareko bidea	Chemin d'Etxeparea
Fagaldeneko <b>bidea</b>	Chemin de Fagaldenea
Galbarioko <b>bidea</b>	<b>Chemin</b> de Galbarioa
Galharreko bidea	Chemin de Galharrea
Geltokiko bide itsua	Impasse de la Gare
Haize Kantariko bidea	Chemin d'Haize Kantari
Haranburuko bidea	Chemin de Haranburua
Heletako errepidea	Route de Hélette
Ibarrondoko bidea	Chemin d'Ibarrondoa
Iguzkianeko bidea	Chemin d'Iguzkian
Ipharreko bidea	Chemin d'Ipharrea
Irritunbordako bide itsua	Impasse d'Irritunborda
Itsasuko errepidea	Route d'Itxassou
Itxurialdeko bide itsua	Impasse d'Itxurialde
Izokiko <b>bidea</b>	<b>Chemin</b> d'Izoki
Jauregiberriko bide itsua	Impasse de Jauregiberria
Kalonjaeneko bidea	Impasse de Kalonjaenea
Karrika Nagusia	Rue Principale
Karrikamusuko bidea	Chemin de Karrikamusua
Kondiareneko bidea	Chemin de Kondiarenea
Kurutxetako bidea	Chemin de Kurutxeta
La Mouline biribilgunea	Rond-point de La Mouline
Lahentzeneko <b>bidea</b>	<b>Chemin</b> de Lahentzenea
Landongoko bidea	Chemin de Landongoa
Lapurdiko ateko bidea	Chemin de la Porte du Labourd
Lattianeko bidea	Chemin de Lattiane
Laurentzeneko bidea	Chemin de Laurentzenea
Laurentzeneko bordako bidea	Chemin de Laurentzeneko borda
Lohixuriko bidea	Chemin de Lohixuria
Makeako errepidea	Route de Macaye
Manttoko bidea	Chemin de Manttoa
Mentako bidea	Chemin de Menta
Mentaetxeberriko bidea	Chemin de Mentaetxeberria
Nahi Nuenako bide itsua	Impasse de Nahi Nuena
Panpaleko bordako bidea	Chemin de Panpaleko borda
Parparoko bordako bidea	Chemin de Parparoko borda
Paxteroeneko bidea	Chemin de Paxteroenea
Petrikundegiko bidea	Chemin de Petrikundegia
Pierreseneko bide itsua	Impasse de Pierresenea
<b>Trinketeko</b> karrika	Rue du Trinquet
Uhaldeko bidea	Chemin d'Uhaldea

Ur dorreko bidexka	Sentier du Château d'eau
Urizmeheko bidea	Chemin d'Urizmehe
Urtsoetegiko lepoko bidexka	Sentier d' Urtsoetegiko lepoa
Xantxolepoko bidexka	Sentier de Xantxolepo
Xantxotegiko bidea	Chemin de Xantxotegia
Xoriekineko bidea	Chemin de Xoriekin
Xukurreneko bidea	Chemin de Xukurrenea
Zilantzeneko bidea	Chemin de Zilantzenea
Leizarrako bide itsua	Impasse de Leizarra

Aho batez onartua,

## EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN "Irisgarritasuna" LEHIAKETA FUNDUAREN BEGIRA

Tokiko agintarien kode orokorra eta bereziki L5216-5 VI artikulua ikusita;

Euskal Autonomia Erkidegoko Funtsak bere kide diren udalerriei esleitzeko araudia ikusirik, Erkidegoko Kontseiluaren 2019ko irailaren 28ko GU 19 zk.

2019ko irailaren 28ko Erkidegoko Kontseiluaren deliberazioa ikusita, zeinaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Agglomerazioak "Irisgarritasuna" lehiaketa funts bat esleitu zuen Harri Xuri kultur aretoaren sarbidea eskaeraren ondoren. Udalak formulatua;

Kontuan hartuta lehiaketa funts bat ordaintzea Batzordearen eta Agglomerazio Komunitatearen deliberazio konkordatua behar dela;

Erabakia egitera gonbidatuta, udalak bere txostena txostena entzun eta bertan deliberatu ondoren:

- Harri Xuri kultur aretoaren irisgarritasunerako "Irisgarritasuna" lehiaketa funtsaren 15.000 euroko "Irisgarritasun" lehiaketa funtsa onartzea onartzen du;
- Alkateari baimena ematen dio erantsitako dagokion finantza hitzarmena sinatzeko.

Aho batez onartu da

Luhuson, 2020ko ekainaren 27a,  
Jean-Pierre HARRIET jauna  
Auzapeza